

## COMPRENSIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

Apellidos: .....

Nombre: .....

DNI / NIE: .....

Señale lo que corresponda:

Alumno/a **LIBRE / OFICIAL**:

Grupo / Profesor: .....

### INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE ESTA ACTIVIDAD

- Duración: **60 minutos**.
- Debe realizar **TODAS** las tareas.
- Debe escribir sus respuestas en **la hoja de respuestas (reverso de esta página)**.
- Sólo se admiten respuestas escritas con **bolígrafo azul o negro**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

**PUNTUACIÓN TOTAL: .... /20**

## ERANTZUN ORRIA

<b>TAREA 1</b>	Jarraian elkarrizketa bat irakurriko duzu. Parekatu galderak eta erantzunak adibidean egiten den bezala.	7x1	...../7 puntu
----------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----	---------------

GALDERAK	ERANTZUNAK	
0	E	✓
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		

<b>TAREA 2</b>	2.- Ondorengo testurik aditz batzuk kendu ditugu. Aukeratu aditz egokia hutsuneetan sartzeko. Bi aditz sobera daude. 12x0,5	...../6 puntu
----------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------

0	D	✓
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		

<b>TAREA 3</b>	Ondorengo testua irakurri eta baieztapenak <b>Egia</b> ala <b>Gezurra</b> diren adierazi. 7x1	...../7 puntu
----------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------

		E/G	
0	<b>Erresuma batua eta Europar Batasuna bat datoz Brexitaren inguruan.</b>	<b>E</b>	✓
1	Erabaki hau indarrean sartuko da besterik gabe datozen egunetan.		
2	Ipar Irlandarrak ere ados daude erabakiarekin.		
3	Juckerrek akordioaren berri eman dio Donal Tusk-i.		
4	Bruselasen egindako bileran europar buruzagiei gomendio bat egin zaie.		
5	Bi aldeen akordioa arratsaldez gauzatu da.		
6	Negoiazioak urteetan zehar egin dira.		
7	Boris Johnson gustura azaldu da akordioarekin.		

«Alemanian askoz ere baloratuago sentitzen naiz musikari gisa»

1.- Jarraian elkarrizketa bat irakurriko duzu. Parekatu galderak eta erantzunak adibidean egiten den bezala. 7x1= 7 puntu

Nagore Arin  
BERRIA 2020-03-29  
(Moldatua)

Carlos Rubio Munichen bizi den andoaindarra musikaren arloan hasitako bideari jarraipena ematera joan da Alemaniara: ikastera. Perkusionista da, eta horretan trebatzea du asmoa. Orain, Alemanian bizi da, Munichen: perkusioa lantzen duen master bat egiten ari da.

## **GALDERAK**

### **0. Alemana ikasten ere hasi zara...**

1. Andoain eta Donostia artean joan-etorrian ibiltzeari utzi, eta Alemaniara.  
Zerk eraman zintuen hara?
2. Dagoeneko jo duzu orkestraren batekin?
3. Etxearen parekorik topatu duzu?
4. Izaten duzu nostalgiarik?
5. Munich izan zen zure lehenengo aukera?
6. Zeren falta sumatzen duzu?
7. Zerk harritu zaitu gehien?

## **ERANTZUNAK**

- a) Gradua amaitzean, presioa sentitu nuen master bat egiteko, badirudielako gaur egun masterrik egiten ez baduzu zerbait falta zaizula. Musikaren arloan ere gauza bera gertatzen da. Normalean, gehienek hemen egiten dute gradua, eta, gero, kanpora joaten dira masterra egitera: kontzeptu eta ideia berrien bila. Ni Alemaniara etorri nintzen, musika klasikoaren sortzaileetako bat delako eta musika ikasteko leku eta ikastetxe on asko daudelako. Alemanian askoz ere baloratuago sentitzen naiz musikari gisa.
- b) Irakasleetako bat Alemanian ibilia da; ospe handia du, eta gaur egun Parisko Orkestrarekin dabil. Asko miresten dut, eta erreferentea da niretzat. Hark ere München ikasi zuen masterra. Nire asmoen berri eman nion, eta otsailean Münchenera etorri nintzen saio bat hartzera.
- c) Hemen jendea serioa dela, betiere hitzaren zentzu onean. Pasadizo bat gogoratzen dut: perkusio gelako musika tresnak jasotzen ari ginela, konturatu ginen bozgorailuetako batek ez zuela ondo funtzionatzen. Hiru ordu pasatu genituen konpondu nahian. Ez genuen lortu, baina helburu hori lortzeko aritu ginen lanean.
- d) Bai, unibertsitateko orkestrarekin jo dut, baita Bavaria Hegoaldeko Orkestra Filarmonikoarekin ere. Horrez gain, orkestraren batean sartzeko proba ugari egiten ari naiz.
- e) **Bai, enpatiarengatik hasi nintzen. Lehenengo hilabetean jada erabaki nuen alemana ikasi nahi nuela, baina konturatu nintzen bizi zaitezkeela ingelesarekin bakarrik.**
- f) Niretzat etxea, tokia baino gehiago, ingurua da: familia, lagunak... Eroso nago hemen, baina beti dut buruan ez dela nire herria. Ez dut hainbesteko denbora pasatu lotura hori sortzeko.
- g) Igandeko bazkarien falta sumatzen dut: arreba eta anaia ere kanpoan bizi dira, eta igandeetan elkartzen ginen. Lagunekin gauza bera: larunbat gauetako afarien falta sumatzen dut.
- h) Ez diot neure buruari uzten horri buruz gehiegi pentsatzen. Orain etxean sartuta egon behar dugula eta, ongi etorriko zait oxigenatzeko eta benetan zer egiten ari naizen pentsatzeko.

2.- Ondorengo testurik aditz batzuk kendu ditugu. Aukeratu aditz egokia hutsu-  
neetan sartzeko. Bi aditz sobera daude. 12x0,5= 6 puntu

## EZ DUTE MAITE, NAHI BAIZIK.

ARITZ DíEZ  
ARGIA  
2019-X-17

Hizkuntzak aztertzen ditugunean, hainbat bitxikeri aurki **...(0)**... haien hitz eta esaera guztien artean. Maiz, bitxikeri horiek gogorarazten **...(1)**... hitz arraro asko, gero, lagunen artean edo afari batean kontatzeko balio zaizkigunak, jakitun irudi bat emanez.

Frantsesez, “merke” hitza ez da existitzen; berriz, “*pas cher*” erabiltzen **...(2)**... literalki ez *garesti* esateko, edo “*bon marché*”, *merkatu on*. Herri-uste batek **...(3)**... inuitek 500 hitz baino gehiago dauzkatela *elur* hitza aipatzeko. Baina azalpena ez .da. oso zehatza. Egiatan, inuitek egiten dutena da hitz ezberdin bakoitzarekin, azaltzea elurrak **...(4)**... bezainbeste era, elurra dena den zonalde horietan.

Espainolez, hitz polisemiko ugari **...(5)**..., adibidez, “*blanco*”. Jende askori gustatuko litzaioke zuriz janzte, berriz, seguru asko gutxiri itua (*blanco de tiro*) izatea. Edo “*capital*” berba. Guztiok dakigunez, batez ere azken bolada honetan, “*Barcelona es la capital*” baina, aldi berean “*Barcelona es capital...*”.

Orduan, neure buruari esan **...(6)**...: ez dute maite Katalunia, nahi baizik. Atzo, Katalunian gertatutako istiluak telebistan so egiten **...(7)**... bitartean, alderdi politiko bateko agintari bati entzun nion haiek Katalunia nahi zutela. Estatuko kate bat zenez, espainolez esan **...(8)**... esaldia, eta momentu horretan pentsatu nuen espainol hizkuntzan hainbat hitz dagoela gauza bat maite duzula esateko (*amo, deseo...*); hala ere, berak erabaki **...(9)**... “*queremos*” hitza. Euskaraz, zerbait estimatzen baldin badugu, maitatu egiten **...(10)**..., eta *nahi egiten dugu* zerbait “hartu” nahi dugunean guretzat, gureganatu nahi dugunean, edo gure jabearen menpean nahi dugunean ...

Gizon horrek, hitz konkretu hori erabili zuen momentuan, herritarren kontra poliziak emandako kolpeak ikusten ari **...(11)**... Orduan, neure buruari esan nion: ez **...(12)**... maite Katalunia, nahi baizik.

- |                    |            |            |
|--------------------|------------|------------|
| a) da              | f) gara    | k) nintzen |
| b) dago            | g) dituzte | l) nion    |
| <b>c) dezakegu</b> | h) duen    | m) nituen  |
| d) digute          | i) dugu    | n) zuen    |
| e) dio             | j) dute    | o) zuten   |

3.- Ondorengo testua irakurri eta baieztapenak Egia ala Gezurra diren adierazi.  
7x1= 7 puntu

## **BORIS JOHNSONEK BREXITA ADOSTU DU EUROPAR BATASUNAREKIN**

ARGIA  
2019-10-17

Lehen ministro britainiarrak, Boris Johnsonek, aurreratu eta ondoren Jean-Claude Juncker Europako Batzordearen buruak esan duenez, Erresuma Batuaren gobernuak eta Europar Batasunarena heldu dira Brexitaren inguruan ados jartzera. Ituna, indarrean jartzeko, Erresuma Batuko eta Europako parlamentuek onartu beharko dute. Ipar Irlandako DUP unionistak ohartarazi du ez duela babestuko ituna.

Jean-Claude Juncker Europako Batzordeko presidentek gutun batean jakinarazi dio Donald Tusk Europako Kontseiluko presidenteari Brexitaren negoziatzaileek akordioa lortu dutela, Erresuma Batua modu hitzartuan ateratzeko Europar Batasunetik. Halaber, Bruselako goi-bileran bildutako buruzagi europarrei gomendatu die akordio-proposamena eta Europar Batasunak Erresuma Batuarekin izango duen harremanari buruzko adierazpen politikoa babestea. "Negoziatzaileek", dio Junckerrek, "akordioa lortu dute Irlanda/Irlanda Iparralderako berrikusitako protokoloaren eta 2019ko urriaren 17ko Adierazpen Politiko berrikusiaren gainean".

Bi aldeek adostasuna erditu dute asteazken goizaldeko ordu txikietan, aste luzeko el-karrizketaren ostean eta gainean zutela Europar Batasuneko buruzagien goi-bilera ondo hasteko presioa.

Boris Johnsonek esan du Twitterrez: "Lortu dugu hitzarmen bikaina gure herrialdearen kontrola berreskuratzen diguna. Orain parlamentuak berretsi beharko du Brexita larunbatean horrela ekin diezaiegun beste lehentasunei, hala nola bizimoduaren garestitzea, osasun sistema, delitu bortitzak edo gure ingurumena".



## ERANTZUN ORRIA

<b>TAREA 1</b>	Jarraian elkarrizketa bat irakurriko duzu. Parekatu galderak eta erantzunak adibidean egiten den bezala.	7x1	...../7 puntu
----------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----	---------------

GALDERAK	ERANTZUNAK	
0	E	✓
1	A	
2	D	
3	F	
4	H	
5	B	
6	G	
7	C	

<b>TAREA 2</b>	2.- Ondorengo testurik aditz batzuk kendu ditugu. Aukeratu aditz egokia hutsuneetan sartzeko. Bi aditz sobera daude.	12x0,5	...../6 puntu
----------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------	---------------

0	C	✓
1	D	
2	A	
3	E	
4	H	
5	B	
6	L	
7	M	
8	O	
9	N	
10	I	
11	K	
12	J	

SOBERAN: F,G

<b>TAREA 3</b>	Ondorengo testua irakurri eta baieztapenak <b>Egia</b> ala <b>Gezurra</b> diren adierazi. 7x1	...../7 puntu
----------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------

		<b>E/G</b>	
<b>0</b>	<b>Erresuma batua eta Europar Batasuna bat datoz Brexitaren inguruan.</b>	<b>E</b>	✓
1	Erabaki hau indarrean sartuko da besterik gabe datozen egunetan.	G	
2	Ipar Irlandarrak ere ados daude erabakiarekin.	G	
3	Juckerrek akordioaren berri eman dio Donal Tusk-i.	E	
4	Bruselasen egindako bileran europar buruzagiei gomendio bat egin zaie.	E	
5	Bi aldeek akordioa arratsaldez gauzatu da.	G	
6	Negoiazioak urteetan zehar egin dira.	G	
7	Boris Johnson gustura azaldu da akordioarekin.	E	

## COMPRENSIÓN DE TEXTOS ORALES

P  
R  
U  
E  
B  
A  
  
D  
E  
  
C  
E  
R  
T  
I  
F  
I  
C  
A  
C  
I  
Ó  
N

Apellidos: .....

Nombre: .....

DNI / NIE: .....

Señale lo que corresponda:

Alumno/a **LIBRE / OFICIAL:**

Grupo / Profesor: .....

### INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE ESTA ACTIVIDAD

- Duración: **máximo 35 minutos**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Sólo se admiten respuestas escritas con **bolígrafo azul o negro**.
- Cada tarea se escuchará **dos veces**.
- Para cada una, el procedimiento será el siguiente:
  - **dos minutos** para leer el enunciado y la tarea
  - **primera escucha** del documento
  - **un minuto** para responder
  - **segunda escucha** del documento
  - **dos minutos** para revisar las respuestas y anotarlas en la **hoja de respuestas** (reverso de esta página)
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

**PUNTUACIÓN TOTAL: .... /20**

OCTUBRE 2020

<b>TAREA 1</b>	<b>Ekotaperrak.</b> Txertatu hitzak hutsuneetan. Bi sobera daude.	12x0,5	...../6 puntu
----------------	----------------------------------------------------------------------	--------	---------------

## EKOTAPERRAK

EUSKADI IRRATIA

MANU ETXEZORTU KAZETARIA. Ba begira, Bilbon aukera berri bat zabaldu da etxetik kanpo, baina etxean bezala jan nahi dutenentzat. Ekoizan dendaz ari gara, Poza Lizentziadunaren 12.enean zabaldu ditu ateak, eta azken honekin hiru dira .....(0).... gizarteratzea bultzatzen duen Peñascal kooperatibak Bilbon, Indautxu auzoan zehazki, martxan dituen denda sozialak. Amaia Artetxe lankidea gerturatu da denda berri honetara. Amaia Artetxe, Amaia, egun on, konta iezaguzu.

AMAIA ARTETXE. Kaixo, Manu, egun on. Ba tuperrak aipatu dituzu, eta gu gauden denda honetan ....(1).... dituzten ekotuperrek sekulako arrakasta dute, oso, oso modan jarri omen dira hemen Indautxuko bulegoetan eta, besteak beste, horiek ikustera etorri naiz, ea ze itxura daukaten. Eta hementxe ditut aurrean, e! Hemen nago, hozkailuaren aurrean, Ekoizanek ekoiztutako ekotuperrak ikusten, eta hemen denetik dago. Gaurko bazkaritarako ez dut etxean ezer prestatu behar, zeren lehenak, bigarrenak, azkenburukoak, denak daude tuperretan.....(2)..... Hona, Ekoizan denda honetara etorri, hartu eta nahi baldin badugu hemen jateko edo etxera eramateko. Baina ezagutu dezagun...

MANU ETXEZORTU. Amaia, ze....(3).... dira? Ze ikusten duzu?

AMAIA ARTETXE. Begiratu. Ba hemen aurrean daukat: humusa, falafela, pasta, dago baita, bolognesa erara prestatutako pasta, dago arroza, dago, baita ere, porrusalda...

MANU ETXEZORTU. Aukera ....(4).....dago.

AMAIA ARTETXE. ...piper beteak, kroketak... Nik etxerako kroketa batzuk eraman behar ditut, ze hemen kuiazko kroketak daude eta hauek atentzioa eman....(5)....., baita porruzkoak, shitakezkoak... Eta bueno, beste aldean ditugu hotzak, adibidez, lenteja-entsalada, tabulea, kinoazko tabulea, hotzean jateko... hemen, adibidez, zer nahi duzu esatea? Begiratu gisatua ere bai.

MANU ETXEZORTU. Denetarik dago.

AMAIA ARTETXE. Denetik dago, Manu.

MANU ETXEZORTU. Eta ....(6).... dira, Amaia, tuperrak...

AMAIA ARTETXE. Tuperretan bai.

MANU ETXEZORTU. Eta ez bakarrik tuperrak, eta ez bakarrik tuperrak ekotuperrak dira, ezta?

AMAIA ARTETXE. Bai. Begiratu, .....(7)..... ere ikusten ari naiz. Dena. Ekotuperrak dira, atal batekoak, bai, hain zuzen ere, hemen aurrez aurre ditudanak, produktu ekologikoekin ekoiztutako tuperrak direlako, eta gero beste batzuk daude, eko ez direnak, baina bertako lehengaiekin, bertako jakiekin ekoiztuta daude, eta batez ere helburua, tuper hauen helburua da ez dela janari .....(8)....., etxean eginiko janaria dela, eta hori dute balio erantsia. Baina ez hori bakarrik, eta hori da orain ezagutuko duguna, Manu. Kontatu dezagun, adibidez, denda honetara ailegatzen diren lagunek, hemen lanean daukazuen mutiko hau bezala, ze bide egiten dute?: kooperatiban hasten dira, ostalari-tza ikasten, eta ondoren lan-merkatura .....(9)..... aukera ematen diezue denda hauen bitartez?

EKOIZANEKO LANGILEA. Bai. Jende honek, gurekin lan egiten duten pertsonak, beharbada, Lanbidetik ofertak edo kurtsoak ateratzen dira, haiek apuntatzen dira, eta iraupena, kurtsoen iraupena, ba ez dakit, urtebetekoa izan daiteke, edo bi urte edo hiru, eta beti egiten dituzte praktikak edo lan enpresa batean. Batzuetan izaten da Peñascal kooperatibak dituen enpresetan, adibidez, hemen Ekoizanen egiten dituzte edo beste batzuetan. Baina .....(10)..... da Peñascalen ikasten dutenek eguneko formazioa

OCTUBRE 2020

edukitzea, eta hemendik alde egiten dutenean ba lanpostu serioa edo lanpostu fijo (finko) bat aurkitzea.

AMAIA ARTETXE. Horrek esan nahi du; Manu, hemen ikusten ditugun ekotuper guzti hauek Boluetan sortu direla, bertan .....(11)..... dituztela bertako ikasleek, eta baita gozo hauek ere bai, ze ez dugu aipatu, baina hemen atzealdean ditugu gozo batzuk...  
MANU ETXEZORTU. ...ekogozoak...

AMAIA ARTETXE. ...ze itxura! Ekogozoak eta oso gozoak. Horiek ere Boluetatik pasa dira, zuen kooperatibako .....(12)..... egin dituzte?

EKOIZANEKO LANGILEA. Horiek ere kooperatibo langileek egiten dituzte baina ez Boluetan. Egiten dituzte Montañoko enpresan eta hori dago kokatuta La Villa Vieja de Lezaman.

- |                     |               |                |
|---------------------|---------------|----------------|
| a) azkarra          | f) ekoiztu    | k) prestatuta  |
| <b>b) dagoeneko</b> | g) helburua   | l) saltzen     |
| c) denak            | h) jaki       | m) segurua     |
| d) didate           | i) langileek  | n) txertatzeko |
| e) edukitzea        | j) marmitakoa | o) zabala      |

<b>0</b>	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
<b>B</b>												
✓												

<b>TAREA 2</b>	<b>JOLASTEAREN BEHARRA.</b> Baieztapen hauek Egia ala Gezurra diren adierazi. 7x1	...../.7 puntos
----------------	--------------------------------------------------------------------------------------	-----------------

		E/G	
0	<i>Txikitan asko jolasten dugu: lagunekin, gurasoekin....</i>	<b>E</b>	✓
1	Helduaroan ere jolasten jarraitzen dugu.		
2	Gizarteak ondo ikusten du helduon jolastu beharra.		
3	Psikologoak helduok jolastearen alde daude.		
4	Peru Kalabaza uste du helduok gehiago jolastu behar dugula..		
5	Peruk behin kartel batean jarri zuena gaizki interpretatu zitekeen.		
6	Peruk NON STOP jolasa aurkeztu nahi digu.		
7	Gaur egun, umeek, lehen adina jolasten dute.		

TAREA 3	ESKU EMATEA Baieztapen hauek Egia ala Gezurra diren adierazi. 7x1	...../7 puntu
---------	-------------------------------------------------------------------	---------------

## ESKU EMATEA

0. *Elkarrizketa honetan agurtzeko moduez hitz egiten zaigu:*

- a) **Elkarrizketatua, Mel alegia, besarkadaren aldekoa da.**
  - b) Eskua ematea gizonen arteko dela dio.
  - c) Jendeak nahiago du bi musurekin agurtu.
1. Zenbat aldiz garbitzen ditu eskuak Mel-ek?
    - a) Egunean behin edo pare bat aldiz gehienez.
    - b) Konpultsiboki garbitzen ditu.
    - c) Oso maiz garbitzen ditu.
  2. Badago jendea askotan garbitzen dituen?
    - a) Badira garbitzen ez dituztenak ere.
    - b) Bai, arazo ere bihur daiteke.
    - c) Ez, ohikoena behin garbitzea.
  3. Zergatik erabiltzen ditu eskularruak neguan?
    - a) Apaingarri gisa erabiltzen ditu, modaren arabera.
    - b) Beste pertsonen eskuekin kontakturik ez izateko.
    - c) Eskuak bero mantentzeko, oso hotzak izaten dituelako.
  4. Mel egiten ari den ikus-entzunezkoan, zer azalduko da?
    - a) Eskuak behin eta berriz, etengabe.
    - b) Gorputzaren atalak, barrutik eta kanpotik.
    - c) Marrazki abstraktuak izango dira, nagusiki.
  5. Zertaz ohartzen da Mel eskua ematean?
    - a) Eskuen tenperaturari erreparatzen dio.
    - b) Gizonezkoa ala emakumezkoa den.
    - c) Pertsona lasai edo urduri dagoen.
  6. Maite duzun pertsona bati eskua ematean...
    - a) Egoeraren arabera eroso senti zaitezke, ala ez.
    - b) Ez zara batere eroso sentitzen jendearen aurrean.
    - c) Kasu guztietan eroso sentitzen zara.
  7. Nolako eskuak gustatzen zaizkio Meli?
    - a) Emakumeen esku txikiak gustatzen zaizkio.
    - b) Ez dauka esku mota berezi bat gustuko.
    - c) Handiak eta beroak, bere eskuak epeltzeko.

0	1	2	3	4	5	6	7
A							
✓							

<b>TAREA 1</b>	<b>Ekotaperrak.</b> Txertatu hitzak hutsuneetan. Bi sobera daude.	12x0,5	...../6 puntu
----------------	----------------------------------------------------------------------	--------	---------------

## EKOTAPERRAK

- |                     |               |                |
|---------------------|---------------|----------------|
| a) azkarra          | f) ekoiztu    | k) prestatuta  |
| <b>b) dagoeneko</b> | g) helburua   | l) saltzen     |
| c) denak            | h) jaki       | m) segurua     |
| d) didate           | i) langileek  | n) txertatzeko |
| e) edukitzea        | j) marmitakoa | o) zabala      |

<b>0</b>	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
<b>B</b>	L	K	H	O	D	C	J	A	N	G	F	I
✓												

<b>TAREA 2</b>	<b>JOLASTEAREN BEHARRA.</b> Baieztapen hauek Egia ala Gezurra diren adierazi.	7x1	...../7 puntos
----------------	-------------------------------------------------------------------------------	-----	----------------

		E/G	
0	<i>Txikitan asko jolasten dugu: lagunekin, gurasoekin....</i>	E	✓
1	Helduaroan ere jolasten jarraitzen dugu.	G	
2	Gizarteak ondo ikusten du helduon jolastu beharra.	G	
3	Psikologoak helduok jolastearen alde daude.	E	
4	Peru Kalabaza uste du helduok gehiago jolastu behar dugula..	E	
5	Peruk behin kartel batean jarri zuena gaizki interpretatu zitekeen.	E	
6	Peruk NON STOP jolasa aurkeztu nahi digu.	E	
7	Gaur egun, umeek, lehen adina jolasten dute.	G	

<b>TAREA 3</b>	<b>ESKU EMATEA</b> Baieztapen hauek Egia ala Gezurra diren adierazi. 7x1	<b>...../7 puntu</b>
----------------	--------------------------------------------------------------------------	----------------------

### ESKU EMATEA

<b>0</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>
<b>A</b>	A	B	C	A	A	A	B
✓							



## MEDIACIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

Apellidos: .....

Nombre: .....

DNI / NIE: .....

Señale lo que corresponda:

Alumno/a **LIBRE / OFICIAL:**

Grupo / Profesor: .....

### INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE ESTA ACTIVIDAD

- Duración: **30 minutos**.
- Debe escribir con **bolígrafo azul o negro**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

**PUNTUACIÓN TOTAL: .... /10**

## BIZIKLETENA DA ETORKIZUNA

IKER GARCIA IDIAKEZ  
ARGIA. 2020-05-07

Autoen eta garraio publikoaren erabilera gutxitu da konfinamendu garaian, eta bizikletaren aldeko apustua gero eta herritar gehiagok egin du leku batetik bestera mugitzeko. Autoentzako ziren espazioak bidegorri bihurtu eta bizikletaren alokairua doan eskaini dute hiri ugarian. Aukera baliatu behar dela dioten ahotsak asko dira, epe ertain eta luzera begira ere neurri horiek mantenduz eta indartuz bizikleta nagusitu dadin garraiobide gisa, berriro denak autoa hartzera itzuli ordez.

Hori baita askoren kezka: deskonfinamenduan, garraio publikoaren erabilera gutxitzea, jendea kutsatzearen beldur izango delako, eta autoa ateratzea indartuta -eta gainera, autoan pertsona bakarra edo pare bat joatea, ez kutsatzeko neurri gisa-. Horren aurrean, mugikortasun jasangarriaren aldeko mugimenduek aurre hartzeko eskatu diete agintariei, hirigintza birpentsatu eta autoak nagusi diren kaleak oinezko eta bizikletentzako erabilgarriago egin ditzaten.

Agintarientzako eskaera garbia da: ez daitezela izan soilik une honetarako neurriak, abiapuntua baizik, mugikortasun eskema eraldatu eta bizikletak eta oinezkoak lehenesteko

Hiriko auzo batetik bestera edota inguruko herrietara desplazatzeko, bizikleta garraiobide aproposa dela nabarmendu dute ikuspegi ugariatik: mugikortasun aktiboa bultzatzen du, ingurumenarentzako onuragarria da eta distantziak mantentzea komeni den garaioan, txirindulariak isolatuta egiten du bidaiaria batetik bestera. Hiria aldapatsua dela edo distantzia luzea dela? Bizikleta elektrikoa aukera aproposa izan daiteke.

Koronabirusaren ondorioz, hiriak birmoldatzen ari dira udal asko, bidegorri gehiago egiten, espaloiak zabaltzen, autoentzako erraiak (karrilak) kentzen... Agintarientzako eskaera garbia da: ez daitezela izan soilik une honetarako neurriak, abiapuntua baizik, mugikortasun eskema eraldatu eta bizikletak eta oinezkoak lehenesteko.



OCTUBRE 2020

**MEDIAZIO ARIKETA.** Atzerritik etorri den lagu n bati, konta iezaiozu ze neurri hartuko dituzten zuen herrian bizikletaren erabilera bultzatzeko. Zertarako eta zergatik egiten da hau? **100 hitz.** (10 puntu)

## PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

Apellidos: .....

Nombre: .....

DNI / NIE: .....

Señale lo que corresponda:

Alumno/a **LIBRE / OFICIAL**:

Grupo / Profesor: .....

### INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE ESTA ACTIVIDAD

- Duración: **60 minutos**.
- Debe realizar **LAS DOS** tareas.
- Escriba a continuación de los enunciados (ver reverso), **indicando el número de tarea**.
- Debe escribir con **bolígrafo azul o negro**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

**PUNTUACIÓN TOTAL: .... /20**

1.- **Eskutitz formal.** (130 hitz)

Zure herriko jaiak atzeratu egin dira bizi dugun egoera dela eta. Idatz iezaiozu eskutitza alkateari honako puntu hauek aipatuz:

- Urte guztia daramazue herriko jaiak prestatzen.
- Irailaren bukaeran egitea proposatu.
- Jaiak ospatzen ez badira herriko taberna eta jatetxeek diru asko galduko dute. (10 puntu)

2.- **E-maila.** (80 hitz). Lagun baten e-maila erantzun.

(10 puntu)

Kaixo Mikel:

Zer moduz zaude? Ondo egotea espero dut. Begira, aste asko pasatu dira azken aldiz koadrilakook elkarrekin bazkaldu genuenetik. Datorren larunbatean bazkari bat egitea pentsatu dugu Gasteizen. Zer iruditzen zaizu? Bakarrik ala zure bikotearekin etorriko zara?

Zure erantzunaren zain,

Leire



## **PRUEBA DE CERTIFICACIÓN-BLOQUE B**

### **MEDIACIÓN DE TEXTOS ORALES**

**Konta iezaiozu zure Irlandako lagunari ezkondu aurretik senar- eta emazte-gaiek lagunekin egiten dituzten ospakizunak. Horretarako, ondoren duzun testua erabil dezakezu.**

#### **EZKON AURREKO AGURRAK, ASPALDIKO OHITURA.**

Ezkondu aurretik lagun edo senideekin agur-festa egitea nahikoa zabaldua dago gure artean. Ez da ohitura berria, gainera. Festa horien jatorria eta bilakaera aztertu ditugu.

Gure alboan festa-giroan dabilen koadrila bat ikusi eta haien artean bat mozorrotuta badago, askori ideia bera datorkigu burura: desberdin jantzitakoa laster ezkonduko da. Izan ere, ezkon aurreko agurrak egitea gure artean zabaldua dagoen ohitura da. Lagunek eta senitartekoek antolatzen diote festa, eta egun bakarreko, biko edo hiruko planak izaten dira, helburu jakin batekin: ongi pasatzea.

Ohitura horrek gure garaikoa edo modernoa badirudi ere, historiari erreparatzen badiogu antzinako gizarteetan ere antzerakoak bazirela ikusiko dugu. Antzinako Mesopotamian sortu omen ziren ezkon aurreko agurrak. Gaur egun, paintball, tuppersex, sokamuturra, jokoak, upategi bat ezagutzea, bainuetxe batean erlaxatzea...; amaierarik gabeko zerrenda osatuko genuke ezkon aurreko agurretan egin daitezkeen planak zerrendatu beharko bagenu. Logroñon, adibidez, horrelako festak debekatu egingo zituztela esan zuten, jende asko joaten zelako eta festa horiek hiriko lasaitasuna oztopatzen zutelako. Donostian ez da horretarako beharrik: "Kalean ez dago horrelako iskanbilarik eta guk ere ez dugu eztabaida larririk izan gure itsasontzietan antolatutako jaietan".

#### **PRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (MONÓLOGO)**

**- GURE ARROPA** Ari buruz hitz egin behar duzu. Arropa erostean moda jarraitzen duzun, denda txikietan ala merkataritza guneetan erosten duzun... kontatu behar diguzu. Arropa gehiegi erabiltzen dugu eta hau kaltegarria da gure ingurugirorako. Zer egin beharko genuke arropa gutxiago erabiltzeko?

#### **COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (DIÁLOGO)**

##### **ENUNCIADO CANDIDATO A**

- Beganismoa izango dugu eztabaidagai. Begano izatea erabaki zenuen orain dela hainbat urte. Zure ustez haragi kontsumoa gehigizkoa da eta murriztu egin beharko genuke. Defendatu beganismoaren alde onak eta arrazoitu zure argudioak.

##### **ENUNCIADO CANDIDATO B**

- Beganismoa izango dugu eztabaidagai. Ez duzu ulertzen begano izatearen onurak eta haragia jaten jarraitzeko asmoa duzu. Begano izatea moda bat dela uste duzu eta ez duzu uste haragia kaltegarria denik. Defendatu zure postura eta arrazoitu zure argudioak.